

Armanak Uskara

edo

Ziberouko Egunaria

1895 gerren ourtheko

Jinkoa eta Herria !
Zuhurtarzuna eta lana !
Eta bizi bethi Uskalduna !
Iao ! Iao !
I-a-a-a-a-o-o-o-o-o !

SALTZEN DA

Maolen
DETCHERRY enian

Atharratzen
CAUTURE enian.
MENDIONDO-SANTZENIAN

Prezioa : BI SOS



BEGITHARTE HORIEK :

- ⊕ *erran nahi da* : Estiapen haste *edo* argigazi oso.
 ☾ " Argigazi azken laordena.
 ● " Gorapen haste *edo* argigazi berri.
 ☽ " Argigazi lehen laordena.

OURTHEKO BESTA KHANBIAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthailako* 10^{an}; — HAOSTE, *baranthailako* 27^{an}; — BAZKO, *jorrailako* 14^{an}; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 20^{an}, 21^{an} eta 22^{an}; — SALBATORE, *maiatzeko* 23^{an}; — PHEN-TEKOSTE, *arramaiaitzeko* 2^{an}; — BESTABERRI, *arramaiaitzeko*, 13^{an}; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *abentu* 1ⁿ.

LAOR THENPORAK :

Martchoko 6 ⁿ , 8 ⁿ eta 9 ⁿ .	⋮	Buruilako 18 ⁿ , 20 ⁿ eta 21 ⁿ .
Arramaiaitzeko 5 ⁿ , 7 ⁿ eta 8 ⁿ .	⋮	Abentuko 18 ⁿ , 20 ⁿ eta 21 ⁿ .

EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Argizagi ulhuntze osoa martchoko 20^{an}; ikhousiren da Uska Herrian. — Ekhi ulhuntze phartezkoa martchoko 25ⁿ; ezta ikhousiren Uskal-Herrian. — Ekhi ulhuntze phartezkoa, agor-rilako 14^{an}; ezta ikhousiren Uskal-Herrian. — Argizagi ulhuntze osoa, buruilako 4^{an}; pharte ikhousiren da Uskal-Herrian. — Ekhi ulhuntze phartezkoa, buruilako 18^{an}; ezta ikhousiren Uskal-Herrian.






HANITCH KHASU HOUNI



ZIBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arround. Bigerren arraldia, 1893^{an} hasirik, bi ourtheren burian urhentzekoa da.



ERRAN ZAHAR



Adichkide gabe biziden aberatsa
Pikatietan lo'giten datsa.

Aharaosi usia gose edo lo mezia.

Ahoa debilano, sabela botz.

Aita bilzaliari, seme barreiari.

Alhaba ezkont ezak nahi denian,
Semia ordu denian.

Amaizuna eztizkoa ere ezta houna.

Ardia ahuntzari ilhe eske.

Arrotza bekhaitz arrotzari.


Arrotzak ez lan daidik, ez deraidik.

Azen petik zopak jan'tu.

Atzekoaren behiak erroa handi.



KHANTORE



I.

Oihaneko zuhagnetan
eder zuhagnik gorena :
Eropako populietan
aiphaturik Uskalduna.
Houra da zaharrena,
Kantabriaren semia,
Lorious bere mendietan,
bethi libre izan dena.

2.

Leheneko Uskaldunari
otsa zaio baratu ;
Fidel zela Herriari
eta legetan argitu.
Houra izan da gerlari,
usu odolak ichouri ;
Fideltarzuna etchekei
eta legia hareki.

3.

Haritchpiala bildurik
Uskal Herri orotarik
Han legia eginik
bakotchak botzak emanik.....
Orai ezta biltzarrenik
ez eta ere legerik :
Fideltarzuna galdurik
eta legia saldurik !





OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- D l. l. 4ⁿ, goizanko 8^{or}. eta 2^{min}
 ☉ a. o. 11ⁿ, goizanko 6^{or}. eta 59^{min}
 ☿ a. l. 17ⁿ, arratseko 11^{or}. eta 5^{min}
 ● a. b. 25ⁿ, arratseko 9^{or} eta 35^{min}

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- D l. l. 3ⁿ, gaiherdi eta 26^{min}
 ☉ a. o. 9ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 32^{min}
 ☿ a. l. 16ⁿ, arrastiriko oren 1 eta 18^{min}
 ● a. b. 24ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 53^{min}



- | | |
|-------------------|---------------------------|
| 1 Asteharte. | ZIRKONZISION. |
| 2 Astizken. | s. Makaire. |
| 3 Ostegun. | s ^a Jenevieva. |
| 4 Ostirale. | s ^a Fausta. |
| 5 Neskanegun. | s ^a Amelia. |
| 6 Igante. | APHARIZIO. |
| 7 Astelehen. | s ^a Melania. |
| 8 Asteharte. | s. Luzien. |
| 9 Astizken. | s. Julien. |
| 10 Ostegun. | s. Marzien. |
| 11 Ostirale. | s. Teodoso. |
| 12 Neskanegun. | s ^a Taziena. |
| 13 Igante. | s. Leonze. |
| 14 Astelehen. | s ^a Hilera. |
| 15 Asteharte. | s. Phaole, erm. |
| 16 Astizken. | s. Marzel. |
| 17 Ostegun. | s. Antoni. |
| 18 Ostirale. | J. Phetir. Err. Jartia |
| 19 Neskanegun. | s. Kanut. |
| 20 Igante. | s. Fabien eta Sebast. |
| 21 Astelehen. | s ^a Añes. |
| 22 Asteharte. | s. Bizente. |
| 23 Astizken. | A. B. Ezkontz |
| 24 Ostegun. | s. Timote. |
| 25 Ostirale. | J. Phaoaler kon. |
| 26 Neskanegun. | s. Polikarpe. |
| 27 Igante. | s. Johane Kris. |
| 28 Astelehen. | s. Amadeo. |
| 29 Asteharte. | s. Franz. Sal. |
| 30 Astizken. | s ^a Martina. |
| 31 Ostegun. | s. Petiri Nol. |

- | | |
|-------------------|---------------------------|
| 1 Ostirale. | s. Iñazio. |
| 2 Neskanegun. | KHANDERALLU |
| 3 Igante. | s. Blasi. |
| 4 Astelehen. | s ^a Jana, Val. |
| 5 Asteharte. | s ^a Agata. |
| 6 Astizken. | s. Aman. |
| 7 Ostegun. | s. Romual. |
| 8 Ostirale. | s. Johane Mat. |
| 9 Neskanegun. | s ^a Apolina. |
| 10 Igante. | Setuajesimo. |
| 11 Astelehen. | A. B. Lourdakoa. |
| 12 Asteharte. | s. Tita. |
| 13 Astizken. | s. Filbert. |
| 14 Ostegun. | s. Valenti. |
| 15 Ostirale. | s. Fausti. |
| 16 Neskanegun. | s ^a Julienna. |
| 17 Igante. | Setsajesimo. |
| 18 Astelehen. | s. Flavien. |
| 19 Asteharte. | s. Konrad. |
| 20 Astizken. | s. Eucher. |
| 21 Ostegun. | s. Pepeñ. |
| 22 Ostirale. | J. Phetir. Ant. Jart. |
| 23 Neskanegun. | s. Petiri Dam. |
| 24 Igante. | Kinkajesimo. |
| 25 Astelehen. | J. MATHIAS, ap. |
| 26 Asteharte. | s. Zezairé. |
| 27 Astizken. | HAOSTE |
| 28 Ostegun. | s. Rufi. |



MARTCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☿ l. l. 4ⁿ, eguerdi eta 50^m.
- ☿ a. o. 1ⁿ, goizanko 3^{or} eta 47^m.
- ☿ a. l. 18ⁿ, goizanko 5^{or} eta 41^m.
- a. b. 26ⁿ, goizanko 10^{or} eta 34^m.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☿ l. l. 2ⁿ, arratseko 9^{or} eta 37^m.
- ☿ a. o. 9ⁿ, arrastiriko 0^{or} 1 eta 53^m.
- ☿ a. l. 16, arratseko 11^{or} eta 32^m.
- a. b. 25ⁿ goizanko 0^{or} 1 eta 20^m.




- 1 Ostirale. s. LEON, Baion.
- 2 Neskanegun. s. Zinplize.
- 3 **Igante.** GOROZUM. 1^a.
- 4 Astelehen. s. Kasimir.
- 5 Asteharte. s. Luperkule.
- 6 Astiz. IV. Th. B. s^a Koleta.
- 7 Ostegun. s. Tomas Akin.
- 8 Ost. IV. Th. B. s. Johane Jink.
- 9 Nesk. IV. Th. B. s^a Frantzesa.
- 10 **Igante.** Gorozum. 2^a
- 11 Astelehen. s. Konstanti.
- 12 Asteharte. s. Greg. hand.
- 13 Astizken. s^a Ufrasia.
- 14 Ostegun. s^a Matilda.
- 15 Ostirale. s. Zakaria.
- 16 Neskanegun. s. Ziriaka.
- 17 **Igante.** Gorozum. 3^a
- 18 Astelehen. J. Gabriel. ark.
- 19 Asteharte. s. JUSEF.
- 20 Astizken. s. Zirilo.
- 21 Ostegun. s. Benedi.
- 22 Ostirale. s^a Riktruda.
- 23 Neskanegun. s^a Pelajia.
- 24 **Igante.** Gorozum. 4^a.
- 25 Astelehen. A D M. ANONTZ.
- 26 Asteharte. s. Braulio.
- 27 Astiken. s. Johane Lam.
- 28 Ostegun. s. Justen.
- 29 Ostirale. s. Pastor.
- 30 Neskanegun. s. Amadeo.
- 31 **Igante.** PASIONIA.

- 1 Astelehen. s. Huges.
- 2 Asteharte. s. Frantzes P.
- 3 Astizken. s^a Irena.
- 4 Ostegun. s. Isidro, Aphk.
- 5 Ostirale. s. Bizente Ferr.
- 6 Neskanegun. s. Sisto.
- 7 **Igante.** ERRAMU.
- 8 Astelehen. s. Albert.
- 9 Asteharte. s. Akazio.
- 10 Astizken. s. Makari.
- 11 Ostegun. Osteg. saintu.
- 12 Ostirale. Ostir. saintu.
- 13 Neskanegun. Nesk. saintu.
- 14 **Igante.** BAZKO.
- 15 Astelehen. s^a Anasztasia.
- 16 Asteharte. s^a Grazi.
- 17 Astizken. s. Anizet.
- 18 Ostegun. s. Elutero.
- 19 Ostirale. s. Leon IX.
- 20 Neskanegun. s. Teotimo.
- 21 **Igante.** 1. s. Anzelmo.
- 22 Astelehen. s. Soter eta Kaio.
- 23 Asteharte. s. Jorji.
- 24 Astizken. s. Zerazi.
- 25 Ostegun. J. MARK, Eb.
- 26 Ostirale. se Klet & Marz.
- 27 Neskanegun. s. Zerazio.
- 28 **Igante.** 2. J. Phaole, K.
- 29 Astelehen. s. Petiri, m.
- 30 Asteharte. s^a Katalina.



AITA SAINTIAREN ERAKASPENAK



Khirstien eginbide gehienak.



HIRISTIAK behar dira agerian eta agoñureki dotrina katolikoari jarraiki, eta houra bere egin ahal oroz ezaguterazi. Jinkoak ezari zuzenez, pheredikatzeko kargia emanik da jakintsier, erran nahi beita aphez-kupier, hourak Espiritu saintiak ezari beitu Jinkoaren Elizaren gobernazale. Bena emanik da, orotan gainti, Erromako Aita Saintiari, Jesus Kristen ordariari, buruzagigoa osoarekin Eliza guzia gobernatzen beitu, eta fedia eta athun hounak begiratzten. Haregatik ezta ouste ukhen behar debetu dela batbederari erakaspén hortan, zer bait ere maneraz, pharte hartzia, berheziki Jinkoak dohaintu dutian gizouner, bester hounki egiteko mengoa dienian.

Beharordia gerthatzen denian, haiek ehiñera har dirokeie, ez dotorren eta jakintsien misionia, bena be-raiek ukhen dutien jakitaten bester emaiteko libertatia, holatan naosien erakaspénen arrerraille elibat bezala beitate. Bestalde batbederaren lagungoa hori hain sori eta ekhoizpeneko eduki du Batikaneko Kontsilioak, noun beraien izenian galthatu beitie Kontsilioko Aitek. Houna zer dioien : « Khirsti fededun guziak, berheziki gehien eta erakasle direnak, othoitzten dutugu, Jesus Kristen izenian eta Salbazale Jinko den horren naosigoaren berthutez, manu ere emaiten deregú, junta ditzen bere gorthura eta indarrak erakas-

pen gezurtien hurrunt erazteko eta Eliza Santa ganik irazitako. »

Orhit dadila arren batbedera egiazko fedia heda eraz ahal dirokiala, eta behar diala etsenpliaren indarraz, bai eta harek emaiten derizkun manien agerian bethi pratikatzez... Elitzakeie khiristiek bere eginbidiak osoki betha bederazka gudukan aritzez. Hartakoz etzaio aski uduritu Jesus Kristi bere erakaspenen jar-raikizale egitia : bena hourak algarreki bildurik, egin du hetzaz khorpitzbat, houra beita Eliza, eta bera haren buria edo naosi gehiena beita. (*Coloss.*, 1, 26.)

Jesusek ezari dian botigoa horren egindurak eta lotgarriek eztie ounhartzen ahal dengutieneko aldatze edo khanbiorik ; eta ezta ere haizu batbederari nour bere gisa haren althe gudukatzia ; ezik ere Elizarekin eta Jesus Kristekin bilzen ari eztena, barreiatzen ari da, (S. LUK, XI, 23) eta halakoak Jinkoaren etsaiak dira. Algarreki gogoz eta egitatez juntaturik gudukan aritze horren hanitch beldur dira Errelijione katolikoaren etsaiak ; bena hortako ber chediak behar dutugu bihotzetan ukhen.

Zer gorthurarekin eta zer hitz borthitzekin Jaon dona Phaolek batarzun hori gomendatzen zian bere denborako khiristier ! « Ene aorhide maitiak, othoitzen zutiet, Jesus Krist goure Jaonaren izenian, orok ber gaizak erratzie ; ezpiz baiietezkarik zien artian, ber gogoak eta ber sendimentiak ukhen itzatzie. »

Zonbat zuhur den manu hori klarki ageri da.

Khiristiek badakie segurka, Elizaganik ukheitez bere sinhestiaren argia, eta houra beren gidari ounhestez, egia badiela. Eta ezten bezala Kristbat baizik, eta harek ezari Elizabat baizik, ezta behar mundian egiazko erakaspenbat baizik, Jinkobat eta sinhes-tebat baizik. Ber sinhestiak, uthurburu garbi baten anzo, sor erazten dutu ber nahikuntiak eta ber asturak.

Bena sinhestiaren batarzun hori, J. Phaolek man-

hatzen dian bezala, ezinago tink izan behar da, eta nolako nahi izan ditian Jinkoak erakatsi derizkun egiak, behar dutugu oro bardin eta osoki houn hartu : bati sinhestiaren ukhatzia, ororen ukhatzia bezala lizate.

Eliza da Jinkoak erakatsi egien begiraria, eta hari dago haien erakastia eta haien egiazko gogoaren emaitia. Eta Elizan erakasle gehiena eta okherrian ezin ari daitekiena da Aita saintia. Gogo bereko eta sinheste bereko izatiak baderagoka Aita saintiari behatzia eta haren erraner jarraikitia, Jinkoa bera baliz bezala.



JAON ESPONDA, APHEZKUPIA

ASKAL Herriko gizon aiphatienetarik izan da Henrik Esponda. Sorthu zen Ziberoko hiri gehienian, Maolen, 1568^{an}. Haren aita Pao-beko khortian kontseller zen eta Erregiña Jana higanaot sobera famatiaren bereter. Bere haorrak batheia erazi zutian Dona Phaleun, eta eraiki erazi bera bezala higanaoten sinheste izunian. Henrik hounen ugazaita izan zen Henrik erregiña Janaren semia, geroan Henrik, izeneko laorgerren, Frantziako errege handia izan bezar zena.

Bazian anaie bat Johane deitzen. Biak handizki eskolatiak izan ziren, bena jakitatan aitzinatu zirenian, gogo chucheneko beitziren, ezagutu zien bide gaichtoan beren aitag ezari zutiela, eta katoliko erreligionialat utzuli ziren. Johanek Homeraren eta Hesiodoren liburiak greketik latinera utzuli zutian, eta agitara ere eman liburu hanitch jakitatezkobat. Azken hortan eraozten dutu eta izun ezaguterazten higanaoten erakaspentak eta erakousten zer arrazou handi ukhen dian



erreljione katolikoaren egiazko ezagutzeko eta hartarat utzulzeko.

Henrik anaiaren urhatser jarraiki zen. Duperron eta Bellarmin kardinale aiphatu eta jakintsiak ziren liburien irakourtziak begiak ireki zeritzon. Ezagutu zian bide gaichtoan zela eta konbertitu. Gizon handiak eta aiphatiak beitziren bi anaie horik, hoiien konbertitziak gaiztu zutian higanaotak. Ordu hartan, Johane galthoe.


tako ikhousle zen (maître des requêtes) Henrik laorgerrenaren khortian eta erregeren ordari gehiena La Rochelle den hiriko gaintian. Henrik jakitate handieneko gizonen artian gora etsirik eta aiphaturik zen, eta higanaoten loriabat. Konbertitu ziren bezain sarrri, higanaotek egin ahalak egin zutien hayen gutietserazteko eta laidostatzeke, gorago heltu nahiz konbertitu zirela otsez. Johanek ihardetsi zerien protestanten erakaspener aitzia eta egiazko errelijioniaren althe izkiribatu zian liburu sabantaz.

Henrik Erroumarat joan zen ; han bost ourthe eroan zutian ustudiatzen eta liburu izkiribatzen. Baronijs deitzen den izkiribazale aiphatu batek Eliza saintaren edo khiristigoaren istoria argitara eman beitzian hamabigerren mentalano, Henrik Espondak istoria haren segida egin du 1640 gerren ourthialano ; eta ordian Erroman berian apheztu zen.

Haren lan sabantek eta kalitate handiek ekharri zien Louis XIII, Frantziako errege zena, haren Pamier den hirialat igortera aphezkupu. Luzaz etzian ounhetsi nahi ukhen aphezkupugoako karga ouhouragarria, berheziki bere etsaiek eta protestantek elezen ukhen estakuria erraiteko goranahiak zebilala. Bena Urbeñ VIII, ordu hartan bizi zen Aita Saintiak hanitch phetchatzen beitzian, bortchatu zian aphezkupugoaren hartzera. Bere Pamiereko aphezkuperrian houn handiak egin zutian : hamahirour ehun higanaot beno haboro konberti erazi, aphezgeientako seminarioak erazi, erreljiouseen komentu eraiki ; egiazko Errelijioniaren ezaguterazteko eta sustengatzeko hanitch obra egin eta dothatu ; Aita Saintien, Erregiaren eta bere aphezkuperriko jenten laidorioak eta maitetazuna merechitu. Eta Jinkoaren eta Eliza saintaren loriatako egin ondoan obra handi eta bethi irañen direnak, hil izan zen hirour etan hogeita hamabost ourthetan, merechimentuz betherik, eta ehortzirik izan zen Tolosako eliza gehienian, althare khantian.



ESKOLA KHIRISTIAK



AITA saintiak khistier bere eginbidetan gañen emaiten dutian erakaspén gorago aiphatietarik ikhousi behar die aita amek zónbat badereikon goizik bere haorrer eman dezen eta sar eraz bihotzetan Jinkoaren maitetartzuna eta beldurra, eta haren lege saintia haier ezaguteraz. Liburu saintiek dioie gaztezaroko asturak sartzen direla ezur hunetarano, jarraikiten gizonari eta eta harekin hobian etzaten. Go goa eman beze arren aita amek bere haorrek har eztezen eskola eta astura gaichtorik. Berek aski badakie bere haorren Jinkotiar egitez mundu hountako eta besteko dohatsu edukitzen dutiela, eta bere burier urgazpen gozoenak eretchekiten.

Oraiko eskoletan ezta haizu ez othoitz egitia ez eta katchimaren erakastia, eta hori legiak hala manhatzen beitu. Ezta ere haizu Jinkoaz mintzatzia, haren izen saintiaren aiphatzia. Eta errejentak, sobera usu agitzen dena, ez legiaren hitzian baratzen. Hanitch ari dira noula erreljioniari jatzarriko diren, haorrer hurgunt erazteko ; eta ez ihour ere han errejentaren erakaspén galgarrien gezurtatzeko. Errejenta egonik ere tink legiaren hitzian, zer agituko da ? Haorrak, behin ere ez entzutez Jinkoaz mintzatzen, ezta ezaguturen behar bezala. Aphezak eginen du, bai, katchima astian behin, berritan ere behar bada, oren batez aldian. Baduke haorrak, bi oren haietarik kanpo, katchimatik ikhasi dutianen ahazteko artia.

Hartakoz hanitch herritan eraiki dutie, eta eraikiten orano, eskola khistiak, haorrer behar diren jakitate eta ezagutzen emaiten, fediaren galzeko menik gabe. Haoche agitzen da herri haietan : zounbat nahi guti elizatiar izanik ere, eta Frantzia beherian erreljionia

zinez tchipiturik da, aita ama haboroek nahiago dutie haorrak igorri eskola khiristietarat eziaz eta bestetarat. Edireiten die, berak hotz izanik ere erreligionaren eretzian, haorrentako houn dela, eta hourak hobeki eskolatzan eta eraikiten dutiela eskola khiristietan.

Goberniak egin erazi du orai berri eskoletan dabilzan haorren khountia igaran ourtheke. Khountu hortarik ageri da aitzineko ourthian beno gutiago bazela eskola guzientako boti bi mila haor; bena gobernuko eskolek galdu diela bost mila haor, *eskola khiristiek aitzineko ourthian beno haboro bazien aldiz hogei-tabost mila*. Zounbait eretzetan hain dirade herturik gobernuko eskolak ezpeitie hamar haorrik ere, eta direnak errejent edo kargulantenak.

Horra arren zer agitzen den eskola khiristiak diren herrietan; eskola hourak bethi gorentzez badoatza, governiak berak gorda ez dirokiana. Uskal Herrian ere egin die zounbait, eta khiristiguzien eginbidia da haien sustengatzia, bakhoitzak bere ahalaren arao, eta gehienik haietara nourk bere haorren igortez, adinetan direnian. Hanitch lekhutan governiak, ezpeitzaio batere lakhet bere eskolen hutsik ikhoustia, manhatu du errejent eta errejentser othoitzak egin eraz ditzen, eta zouñ herritan ere, katichima ikhas eraz. Bena horik oro ezdirade jenten enganatzeko baizik, eta errejent edo errejentsak bethi aitzina emaiten die, bere erakaspen gaichtoez erreligionaren itzali erazteko haourren gogoetan. Lana echabaki eginik delakoz ezta gutiago segur. Bena hanitch badira horri ohartzen eztirenak eta eskola khiristietarat bere haorren igorteko herabe dukie; eta, oro estakuru, erranen die: « Goure herrian eztuzu hullanik ere eskola zuk diozun bezalakoa; goure jaon errejenta orok maite eta gora edukitzen dien gizouna duzu. Ez-takit badenez bestebat khiristiazko eginbider houra bezañ arrahenki jarraikitzen denik. »

Zer arrazou elizate orano, othoitzak egin eraz ba-

litze halako errejentaren eskolan ! Holako erranari ihardestia ehi da : Aita amak handizki ogendun dirade, herrian badelarik eskola khiristibat hountara ezpadutie bere haorak igorten. Eitzi kargulantak bere gisa ; bizitzekoaren galtzeko beldurrian Jinko gabeko eskoletarat igorten ahal dutie, bena egiazko khiristi badira beharko dutie haorren gogoan sar erazi artha handienareki katichimako erakaspentak. Laborari haboroek ezpeitie hortako arterik batere, beharko dutie kountzentziaz haorak igori eskola khiristietarat. Eta gero, Aita saintiak, aphezakupiek ere, bere guthunetan erran deikie ez behin bena asko aldiz zer mene daduzkan haorrentako eskola jinkogabiak :

« Ikhoustiareki eskolan ihourkerek ezteriola erreligionerik badenez ere aiphatzen, haorak bere beithan eroanen du : aphezak elizan erranak egiak balinbadira, zerentako errejentak eztereizku ezagut erazten ? errelijonia hain gaiza beharra bada, eskolan ikhas ezkinirokia katichima ? »

Egunko haorren ezpiritia aski zorrotz eta erne da holako gogoer ohartzeko. Eta aithortu behar da hori bera aski dela sinhestiaren khordoka erazteko, ez chahu gal erazirik ere.

Mundu hontako bizitziaren houn diren jakitatiak hain ountsa ikhasiko dutie haorrek eskola khiristietan noula gobernuko eskoletan. Eta haboro dena, eskola khiristietan ikhasiko die egiazko jakitatia, jakitate orotako baliousea, nountik jiten giren, nourat goatzan, eta noulako diren goure eginbidiak Jinkoaren eta laguneren eretzian. Arren khiristi guzien eginbide hesia da jinkotiar eskolen sustengatzia.

*
* *

Etsenplubat. — Ofizierbat, hanitch egitekotan bere buria ederki eduki ziana, eta gehienen laidorioak ez gutiago aldiz merechitu zutiena, erori zen ouhouria

eta bere khorphitza kolpatzen zian huts handibatetara. Presou ezari zien, haozikatu legen araoera eta azkenian hilzera koundenatu. Berri horren jakitiak jo zeion garrazki bihotza ; houra ordartino hañ aiphaturik, hañ ouhouraturik izana, gaichkigile tzarbat bezala hilzera kondenaturik. Igourzt eztiro holako akalkia eta chahu dulurutzen da. Aoherretan adichkidek eta aphezek boulkutzen die Jinkoaz orhitzera, hari pharkamentu galthatzera eta khiristiki hilzera. Bena gor dago aholku houn guzier.

Jinkoak nahi eta gerthuz, aphez arrotz batek hirian gainti igaraitian, jakiten du kondenazione haren berri, eta ofizieraren dispoziõione tristia. Haren ikhousteko galtho egiten du eta ardiesten ; sartzen da presontegiko gelan.

Aphezaren agertziari zentzordatzan da presounera: hartan ezagutzen du bere gaztezarroan zian eskoletako naosibat ; orhitzen da ordunko erakaspenez : « Ah ! aita, oihu egiten derio, houlakoa nuzu, jin zitzait salbatzera ; ene buriaz beste egitera nondooazun, eguruki gabe fusillaturik izatia ene errejimentiararen aitzinian, bena gogoala jin zitazu zouri ardura entzun dudan hitzbat : *momentaneum unde pendet aeternitas*, boullta batetarik dependitzen dela eternitate guzia, eta ordian berian aitziniala agertu zitzaiztat. Jinkoak igorri zutu, entzun nezazu eta ene gaztezaroko gi da izan ondoan, izan zite ene hilzian ene salba erazlia.

Kobesatu zen, Jinkoa ganik eta bere lagunen ganik pharkamentia galthatu zian eta ardietsi ; eta gero bihoztõiki eta khiristibatek bezala herioa igourtzi. Hորa khiristiki eskolaturik izatiak zer deragokan. Ordunko erakaspenez orhitziari zor ukhen zian ofizier harek bere salbatzia. Eta zonbat etsenplu ezta gaztezaroko boulltek herra erazi dietetan, etchen eta eskola khiristian ukhen ikhaspen hounez orhiturik, bide hounialat utzuli direnak !





LEGARRAK ETA FRANTZIAKO ZORRA

IGARAN ourtheko armanakian erakoutsu dugu noula gorriek, buruzagituz geroz, erabili dutien Frantziako egitekoak. Bi hitzez arrerraiteko, Frantziako zorra, gerlarik ezgunialarik, handitu da zazpi.miliartez eta budjeta goraturik da gerla denboratik hounat miliartez beno haboro.

Dugun ikhous orai nountik jiten den budjetaren gorentze hori. Ezi gorriek bozka aitzinetik zounbat nahi hitzamanik ere ollaskoak errerik zelutik eroriko zaizkula mahañiala, landanko ourthian legarkariak igorri paperak baderagoka legar emendiobat. Legar bilzetan ez tie kargulantez ouhouñkeria handirik egiten, eta ez ahal ere. Hañ ountsa chedatu zien legarren bilztzia Napoleonek eta haren ondoko bi erregek, noun kargulantbat berhala hatzamanik beita gainti egiten dianian, eta bortchatu ihesiari emaitia, ezpadeza egin ziloa thapa. Kargulant haboroak arren chuchen eta ounest, edo beraortarik, edo ezin bestian.

Bena noun ere hasten beitira gaintiak, ministroek eman manietan da, eta egiten tie haier jarraikiteko *mandat* izunak, ezarten tie sos igorte elibat beste batzien pian. 1884^{an} gobernuko sosetarik phakaturik izan ziren Kochinchinako kargulanten tchosta erazteko joanerazi zutien phastoral egile elibat. 1886^{an} Granet ministro ohiak bere bidajetan igorri sosak goberniari phakaerazten zutian... echabaki, erran gabe. Ministerio hartan bada kredit bat nekezalen sari, estrena, eta erremedioen phakatzeko. Kredit haren pian sarthu zutian bere hara hounaketan egin gastiak, eta deputatu chouribatek ountsa erriz leherrazi zutian bere khanberako lagunak hori khountatu zianian phuntuz phuntu.

Eztu aspaldi khanberan salhatu diela noula minis-

trobaten bereterak phaka erazi dian Frantziako sose-
tarik ourthebatez egari zutian karrochen sariak minis-
terioko zerbutchiaren otsez. Eta etzen khountia
tchipi : hamazazpi mila libera despendio ourthiaren
berbera, hamazazpi mila, zounbat nahi horren sinhes-
tia neke den. Bazen ere egunbat hartan eman erazi
beitzutian berrehun eta hirouetan hogeï liberaentako
bons direnak, bethi karrocha sari ! Lotsa zen araoz
houñak higa, edo bestela bere askazi eta adichkidiak
karrochaz joan erazten zutian, edo orano karrocha
sari alegian, sakolan ezarten zutian sos haïetarik ha-
boraak. Egiteko hori okher uduritu beitzere deputa-
tier eta senadorer, errana zen sohasle jaontto houra
tribunaliala igorri gei ziela, hartu zutianen utzul eraz-
teko.

Bena, elizate horietarik gaichkia handia ; zerk ere
errekan ezariko beikutu goiz edo berant, hao da :
Frantzia ezta behar bezala gobernaturik, edo, egiaz
mintzatzer, ezta batere gobernaturik. Gorriak buru-
zagituz geroz, ezta izan finantzetako ministrobat kar-
giaren bethatzeko houn zenik, geroaz zerbait arran-
kura eta antsia bazianbat. Oro ari izan dira deputatiek
galthatier jarraikiten, ala houn, ala gaichto, majoria-
ren beren althe ahalaz edukiteko. Ordian danik ezta
izan haboro zor phakatzerik, bena bai thaigabeko
jesaite.

1877 ourthiaz geroz budjetak oro egin dutie ordu
berant, ourthekoa ourthia hasirik zenian ; salbu hatik
bozka aitzineko ourthetan. Halaz senadoriak eztzaizte-
kian buhurt khanberak houn hartier, beranta zelakoz
eta zounbait egnez bortchatu ziren hirour miliartetako
budjet haien hountzera !

Jesaite izun hanitch izan da ere. Jesaitiak hor dira,
eskoler helzeko, bide egiteko ; bena bethi jesanaz goiti
igorri die, eta jesan beharko da denbora luze gabe.

Zounbat sos eztie behargabetarik igorri burduñ bide
egiten ! zounbat burduñbide ezta eginik, sosaren intre-

sik ezpeitie emaiten, eta ourthe oroz ezinago khosta beitira! *Freycinet* ministro ohiak haien egitera bildu zutian deputatiak erranez bazatekiala laou miliarten despendioa eta hamar ourtheren barnen egiteko lana zela. Bena eztie herenbat baizik egin eta badakie orai bi etan haboro khostako dela.

Ezta oro hortan. Gorriek bere beithan igaran die : Populia erreligionari jarraikitzen bada, kanpoa dukegu ; idoki dizogun erreligionia. Eta egin die eskoletako legia ezpeitu haizu eizten eskoletan ez Jinkorik ez othoizik, ez fraiderik, ez serorarik. Hoi en ordari ezarten dutie errejent eta errejentsa laoetan haboro khosta direnak. Bortchatu dutu goberniak herri hanitch eskola etche berri eraikitera, haboroetan behargabetarik, edo bazelarik jadanik eskola librobat orori laket zena. Bena etzen hoberik : herriek egin tie eskola etche handi eta ederrak, zorretan sarthu lephoaladrano, eta ehungerren zounbait haboro ourthekeal phakatu beharko dutie.

Kargulantak ere hor dira, legarren goraerazle, hainbeste beitira, eta ountsa khostarik. Orotan kargulantak usuturik. Nourk phakatzen dutu ? Goberniak, bena goure sosetarik. Ministerio berri zounbait bada kargulant hanitchekin, eta ministerio bakhoitzeko gastiak izigarritan gorentu dira. Laborantchako ministerioan berrian bada joanphidetan, gorriak buruzagituzgeroz, hamabi milioutako emendiobat, eta ber houla bestetan. Bada Frantzia orotan miliou eta ehun mila kargulant beno haboro, ezpeitirade segur aizez bizi.

Legar berri izan da, zirenen arhintziaren orde. Ehungerren batez goratu die arrandan gañeko legarra. Fountsetako legarra tchipitu die, bai bena etchaltena goratu eta ororen burian, goberniak khanbio horren medioz hatzamaiten deiku 18 miliou eta erdi, lehen beno haboro. Beste legar zounbait ere erazi die eta berheziki bi errotatako *bicycles* deitzen dutienetan. Igaran ourthian deputatiek nahiko zukien hamar-

gerren erdibatez goratu emaitzetako eta ordeñuz ukheiten diren hountarzunetan gañeko thallak ; bena senadoretegian etzien houn hartu. Zounbait deputatu gorrik nahi die orano phaka erazi legar berhezibat hogeitahamar ourthetarik goiti ezkonturik ezfirener. Eta menturaz lege hori igaran eraziko die oraiko khanberan !

Deputatu batzu mintzatzen dira khanberan, okherrak chuchentu nahiz. Bena ministroa han da ihardesten derena : « Eta sosa ? Nountik dukezie ? Holako legarra edo thalla idoki naki duzie. Ountsa beno hobeki duzu ; bena noun bilhaturen duzie Duhulian horren idokitiak eginen dian hutsa ! » Deputatu haien elhiak, egiaren aithortzeko, eztirade zerbait khanbio nahi diela uduri erazteko baizik.

Igaran ourthian gobernukoek erran zien laoeta erditako arrandaren aphaltzetik ziren 68 miliouak, fountsetako legarren arhintzeko zaiztekiala. Bena arranda aphaltu beno lehen goberniak iretsirik ziren. Goberniak arren bekhokereki gezurra zioan. Berantu zian ere ogietan gañeko thallaren berrogei sosez gorentzia. Nour baliatu da berantze horrez ? Ez laborariak, bena bai atze herrietako arrakharderak, sar erazi beitutie hamar miliou kintale ogi aitzineko prezioan. Hortik izan da Duhularen hogeï miliou liberaren galtzia, eta hortik ere, heinbatez, orai ogiaren hain merke izatia.


Daigun ourtheiko budjeta heltzen da hirour miliart eta 450 miliouetara : oustekeriatan dira jinphidiak aski diratekiala horren burutzeko. Bena jadanik bada ehun eta hogeita hamar miliou eskaz. Arren oraiko legarrak eztira berere aphalturen, bena gisa batez edo bestez haboro phakatu beharko da. Eta berantu gabe goberniak, dioienaz, jesaite handibat eginen du. Eta hola emeki bankarroetiala buruz bagoatza.

Horra zertara erazi gutian gorrien buruzagi ukheitiak.





1894 DEN OURTHIA



GUZIEN errana da, diala hogeitahamarbat ourthe, etzelarik laborantcha hañ aitzinaturik, laborariek bere egitekoak orai beno hobeki burutzen zutiela. Geroztik tresna muta franko eta hounik asmatu die lanen ehikiago eta hobeki egiteko; ezari die ere laborantchako ministrobat; laborarientako eskola berheziak egin dutie. Ororen burian zertara heltu gira? Laborariak errekalaturik dira eta geroak deusere hounik ez hitzamaite. Laborantcha ari da galtzetan, legarrek eta atzeherrietako konkurrentziak leherturik. Erosten dutianak oro khario phakatu behar; saltzeko dutianak deuserentako kasik eman behar. Etchalten eta fountsen balia herenbatez tchipiturik, basa bazterrak, sarri langilerik gabe, husten ari, eta azken bost ourthe, hountan hirour miliou egoilez aphurturik. Hiriak, edo handi edo tchipi esteiariz betherik, eta bide-tan gañen gose jankin eta eskele franko, philda tcharrian dabilzanak.

Ezta segur laborantcha hortan ogendun betheginago denaz geroz, bena bai bi khanberetako majoria, zer nahi hitzamanaz geroz laborarien hounetan ezpeitie deusere fountsik egitekoen behar bezala joan erazteko. 1893^{an} eta aorthen, lehentze egari dutugu eskola jinkogabetako erakaspenen ondorioak. Hor dira *anarchistes* deitzen dutien gaichkigiliai, ezpeitira segur oraiko izatiaz kontent. Horra zertara erazten dutian erreligioniairen aitziko eskolak. Goberniak nahi ukhen dueskoletarik Jinkoaren izena ere ezabatu. Hor diala eskoletan eta zer nahi khasietan erreligionari eman erazi dian gudukaren saria. Eztie ez gaichkigile haiek Jinkoatan sinheste ahamenik, eztira geroko bitzitziairen beldur. Esperantcha hanitch ukhenik mundu hountan berian dohatsu ziratekiela, eta etsiturik, ezpiritu gaichtoak


boulkaturik, jatzartu nahi dira ordre houna zuzenez begiratu behar lutukiener. Jujek kondenatu eta hil erazi tie jente ehaile, eta etche jaozerazle burhagertu diren bi lehenak. Hirourgerrenbat ezta gutiago izan Carnot errepublikako alkhate gehienaren ehaiteko. Ezdutu gaichkigile horik herioraren hullantziak lotsa erazi : hil dira oraiko izatiaren eta algarren arteko bizitziaren maradikazale eta etsai.

Etzien holakolanik eginen Jinkoatan sinheste ukhen balie. Gaichkigiliak, eskola berriak ezariz geroz, ezinago usuturik dira. Eta alkhate gehienetan aiphaturik den batek izkiribatu du izeriturik zela ikhoustez oraiko gaichkigiliak oro kasik gazte direla, erdiak beno haboro eztiela hogeï ourtherik ere. Areta gazteriaren eskolatzeko ourthekal igorten die ehun eta laø etan hogeï miliou. Horik oro eskola Jinkogabiaren ondorioak.

Badakigu crai Errepublikaoko president denak nahi dutiala gainti handienak chuchentu eta gogoeta hounez ariko dela. Bena beldur gira houra beno gothorrago bilha ditian khanberetan. Ezi bada deputatu eta senadore franko gainti chuchenziaren ezpeitira batere arankura. Gero ikhousiko noula joanen diren egitekoak.



SAN BLASI



SAINTIEN artian ezagutienetarik bat da San Blasi, ez hatik bere bitzitzeko obrez, bena hil ondoan egin dutian ikhousgarri eta mirakulliez. Mente orotan erakoutsu du bere photere handia Jinkoaren eretzian, eta hortakoz die othoizten bazter guzietan zer nahi beharrunentako. Hanitch lekhotan eraikie dutie elizak haren ouhouretan ; Uskal Herrian ere badu, Ospitale Miserikordian, Ziberoutar -



A O'Callaghan

OSPITALEKO ELIZA

rek ountsa ezagutzen diena. Aspaldi du haren egi-
tiak, milabat outheren ungurunia, zounbaitek dioie-
naz. Hatsarrian bazen eliza khantian ospitalebat,
praoben eta Española senthorale joaiten zirentako.
Ezduite ospitale haren gora beherak hanitch ountsa
ezagutzen. Dakiena da fraide elibatek erosi ziela,
diala mente eta erdi eta hourak orano hanko buruza-
giak zirela Erreboluzione handiaren hatsarrian.

Saintien bizitzia izkiribatu dienek oustekeriatan dira
San Blasi sorthu zela Armeniako Sebaste hirian.
Bere gazte denboran hanko khiristi gorthenetarik bat
zela badakie, eta aphezakuputu beno lehen, atcheter
edo medezi izanik. Noula hounki hanitch egiten beit-
zian bere hiritarrer eta, khiristien artian ezpeitzen
houa beno jakintsiagorik et Jinkoatan harek bezain-
beste sinheste bazianik, Sebasteko aphezku-
pu zaharra hil zenian, populu guziak San Blasi oihuka
galthatu zian haren ordari. Bena sobera maite zian
Jinkoa gizonen artian bere biziaren higatzeko.

Behin batez, ihouri ere deus erran gabe, joan zen
Arse deitzen zien oihan handibatetara, eta han haitatu
zian egongiatako harpe zilo handibat. Han zegoen egu-
nak eta gaiak othoitzian eta barourik eroaiten zutiala-
rik. Dioie oihaneko basa-ihiziak jiten zeitola ikhous-
tera bere harpiala, eta othoitzetan balinbazen, sargian
etzanik egoiten, eta etzirela hantik hurruntzen sain-
tiak benedikatu landan baizik.

Ordu hetan Errouman enperadore zen Lizinius, oiha-
netan bizi diren basa ihiziak beno krudelagoko gizon-
bat. Gogoan hartu zian behar ziala khiristien aria eza-
ba erazi.

Sebaste hirian bazian bere gogoko zerbutcharibat,
Agrikola, Armeniako gobernadoria. Hounek arren,
enperadoriaren manier jarraikiteko, atzaman ahala
khiristi, saldoka presountegietan athetu zutian eta bur-
duñetan ezari. Batetan hil erazteko gogoan eroan zian
haien basa ihizer jatera emaitia.

Igorri zutian arren soldado saldobat basa ihizekara hiri ondoko oihanetara. Arseko oihaniale heltu ziren eta hartan sarthu, beitzakien han bazukiela zer atzaman. Huruntto joanik ziren zepho ezartez eta janhari, ihize ziloen aitzinian ; oihan erditara zirenian ikhousi zutien basa ihize, lehou, tigre, hartz eta otso saldo handibat algargana bildurik harpe baten sargiari hulan. Haien artian zen san Blasi, belhariko Jinkoaren othoitzan ari. Ahal bezain zalhe eta herotsik egin gabe utzuli ziren soldadoak eta joan gobernadoriari erraitera zer ikhousi zien.

Agrikolak asmatu zian tropek ikhousi gizoun houra zounbait khiristi zatekiala, eta berriz igorri zutian haren oundotik, erraiten zerelarik ekhar lezen bereki. Utzuli ziren arren soldadoak Arseko oihaniale eta ediren saintia, berbera aldi hartan. Batek erran zeron : « Nahiz eztakigun nour eta zer ziren, jin behar zira goureki ; Agrikola Sebasteko gobernadoriak galthatzen zutu ». — « Hounki jinak ziradiela, ene haorak ihardesten dere Blasik ; aspaldi hontan galtho horren haidura nintzan. Hots aitzina, Jinkoaren izenian. »

Soldadoz unguraturik badoelarik, aitziniala agertzen zaio emazte chahar bat nigarretarik erraiten derona : « Aita maitia, urrikari zakio alhargun dohakabebati ; banizun borthako tchipibat, ene hountarzunga oro, eta horra noun otso batek eroan deitan ». — « Emaztia, aphezakupiak ihardesti, ez hola nigarrik egin, eztuzu orano galdia : hor duzula otsoak berak ekharten. » Eta hainbestenarekin heltzen da otsoa eta emazte chahar-rari hounetan ezarten dero bortakottoa eta gero lasterka ihes egiten oihanialat buruz.

Mirakullu horren berri zalhe ukhen zien Sebaste hirian, eta joan zitzaion Blasiri eriak saldoka : sendoturik utzultzen ziren eta saintiak benedikaturik.

Bikaramenian, Agrikola gobernadoriak Blasi bere aitziniala erakharririk, erran zeron : « Uduritzen zitazu Jinko orophoteretsien adichkide ziradiala eta atse har-

tzen dit zoure ikhoustiari ». Blasik hain sarri arrapostu : « Jinko orophoteretsu eta bethierekoak laguntzitzala, jaon gobernadoria. Begireizu zer ari ziren : ezi adoratzen dutuzun jinkoak ezdutuzu ezpiritu gaitcho edo debriak baizik, eta Jinko egiazkoak detsala, hourak eitzirik sar zitian egiazko erreligionian ! »

Agrikolak aski bazian entzunik. Cheheka erazi zian aphezakupu saintia azote eta makila khalduz eta berriz presountegiala igorri. Blasi, khatietan zelarik, ari zen hara jiten zeitzon jenter hounki egiten, erier osagarria emaitzez, bihotzminetan zirenen urgaitzez. Agrikolak, zounbait egunen burian, deithu zian bere aitziniala, eta erran : « Haita ezak, Blasi : behar dutuk goure jinkoak adonatu, edo bestela thormentu lazgarrienak igourtzi ». Bena Blasi tink baratu bere sinhestian. Ordian Agrikolak, bolaturik etzialakoz khiristi houra khordoka erazi, ez mehatchiez, ez eta ouhoure hitzamaitez, haren khorpitzian sar erazi zutian burduñazko orraze suian gorritu elibat eta dena chehekerazi hamu handi batziez.

Ezpeitzen hoiegatik hil Blasi, berriz presountegian ezari zien. Hirourgerren aldikoz deithu zian Agrikolak : « Hots, Blasi, zeiolarik, ukhen duk hire beithan sartzeko artia ; eia amiñibat zuhurtu edo oh'koerhoa hizanez. Adora eta jaorets itzak goure jinkoak, bestela ourthoukiko haie hullanian den osin hortan barna ». — « Hi hizalako enuchenta ! ouste duka hire jinko izunak beña ezdeus dela ene Jinkoa ! Nitzaz egik nahi diana, eztukek hoberik. »

Osiniala egotchi zien Blasi. Bena aphezakupu saintia ebili zen houran gañen, eta zounbait urhats eginik jarri, hour bazterrian zaodener zioalarik : « Ziek, pagano ziradenak, zien jinkoek laguntzarik batere egin badereikezie, egizie nik bezala eta jin ene ondolik ». Horren entzutian, hirouretan hogeitabost gizoun, bere jinko izuner oihu eginik, abiatu ziren houran gañen bere oustez, eta denak han berian itho.

Ordian agertu zeron san Blasiri aingurubat erraiten zeiona : « Jalkhi hadi houretik, Jesus Kristen soldado bihoztói, eta utzul leihorrialat, hire naosiak zelian begiratzén deian sariaren hartzera. » Botzik abiatu zen hour bazterrari buruz, eta leihorrian heltu bezañ sarri kondenatu zian Agrikolak hiltzera, eta soldadoek lephoa ezpataz mouztu zeroien.

Hiltzerakoan san Blasik othoítu zian Jinkoa, entzun litzan haren artekotarzunaren bidez hersatuko zeitzon khiristiak eta eman leitzen galthatuko zutien graziak. Eta Jinkoak ounhetsi zian bere martiraren othoia.

Nounko nahiko jenten artian bada sinhestia houn dela san Blasiri hersatzia zuntzurreko minentako. Errouman berheziki, ama khiristiek eroaiten dutie haorrak, haren izenian diren elizetara eta sutzietan olio harturik haor bakhoitzaren zuntzurrian khurutchebat egiten, dioielarik : « San Blasien artekotarzunaz Jinko hounak begira hezala gaitz orotarik. Halabiz ».


Uskal Herrian badira hanitch orano, meza eta othoítze eman erazten dienik san Blasiren ouhouretan, kabalen hounetan. Badira ere galtho gainti egiten die-nik. Hobena da, hebenko aphezbatek aholku emaiten dian bezala. zerbait galthatzen denian mundu hountako beretako, ez ahaztia arimarentako houn direnak. Houna, urhentzeko, san Blasien ofiziotik idokirik den othoizbat :

« O Jinko, houna san Blasi, aphezkupu eta martira, bere thormentien erdian dohaintu duzuna bathi eta iraipen amiragarri batez, eta bazter guzietan ezagut erazi lagunén eritarzunetarik sendo erazteko eman derozun photeriaz, iguzu grazia, zoure hountarzunian, hora bezala fedian bethi tink egon gitian, eta goure meneunetan ezagut dezagun haren artekotarzunaren indarra. Jesus Krist goure Jaonaz. Halabiz. »





LABORANTCHAZ



I. — Uztak 1894^{an}.

AZKEN ourthia ezinago tchar izan bazen bazken-tako, etzutian hain gaizki erabili ereitziak, eta artekotto izan ziren uztak bazter orotan. Aldiz ekhoitzez eta mahatzez bazen gaintika, eta aspaldiko ourthetan etzen ordian bezainbeste ardourik izan, ez eta hañ hounik. Sagar eta udari ardou ere egin zien bietan ourthe hounez ohi egiten den bezanbat. Bena, dioienaz, soberantzia ezpeita deusetan ere houn, agitu da hanitch eretzetan ardoua ezin saldian baratu dela : gaiza tcharra, thupa eskazian behar ukhen beizutien mahastidunek ountzi berriak erosi baliatz gainti. Ardou hobenek hatik erostun bazien, eta aski eijerki saldu tie bena merketto. Egia bada ere, ardou haiek eztukie kalterik uguruki beharra gatik, joanago eta hobiago billhatzen direlako. Aorthen ardouak oro, hounak bes-tiak bezala, hobeki salduko dira, gutiago egin beitie eta beharrunen petik.

Haroa desbardin izan da orai artekan : ipharaltian eurizu, eta azken egun hoietan izan da ere uholdi izi-garririk ; hegoalteko eretzetan idorte, aldiz, eta ereitziak guneka ezin egin, lurra tinkegi zelakoan. Haboroetan hatik egin dutie ereitziak haro hounareki eta sekalia eta ogiak eijerki badoatza.

Egin die aorthenko uzten khountia. Ogi uza mente hountako nasaienetarik izanda, 1874 kotik landan, eta hori, aitzineko ourthez beno gutiago eremu ereñik bazelarik. Bazen, *L'Echo agricole* den gasetak dioa-naz, 125 miliou eta erdi zaku ogi, erran nahibeita bi miliou zaku Frantziako beharrunen gañetik. Aortenko ogia igaranekoa beno arhinago da eta zaku ogiak

phezu du 76 kilo, 1893^{an} bazialarik biga haboro. Goberniaren gasetak beste chifrurik emaiten du ; harek dioana ezta izan 121 miliou zaku ogi baizik, phezu beitie, bata beste 77 kilo beno haboroche.

Hanitch houn lizate, holako uzta, ezpalira hañ aphał ogiaren prezioak. Ezinago beheraturik dira eta ez hobiagoen esparantcharik zounbait hilabetez. Ezi aorthenko uzta beharrunen gañetik da Frantzian, eta bada igaran ourtheke oundar phouskabat eta haboro orano atze herrietarik sar erazi dutienetarik. Hao izkiribatzen dudan egunetan kintale ogiaren prezio gorenena da hamazortzi libera, egiten beitu zakiarentako hamahirour libera eta erdiren heña. Prezio hortan eztiro mouzkinik egin laborariak, eta ere galzetan ari da. Egia da kabaliak hobekiche saltzen direla eta zerbait mouzkin emaiten die ; bena gorentze horrek zounbat irañen du ? Bi ourthe hountan zinez abiaturik dira Ameriketarik idi igorten ; egiten deitze orai hañ ountsa tegiak ountzietan, noun erran beilirokie idi hourak, bidajetik landan, jiten direla chuchen sorhoetarik, hañ beitiara eder eta gizen. Kabale haztiak, hola ari badira indianoak, sarri eztuke ogi egitiak beno haboro balia. Eta ezta orotan kabale hazten. Noun ere ogi ereitziak egiten beitutie gehienik, zer eginen du laborariak ogia galtzetan baizik ezpadeza sal ?

Mundu orotako ogi uzta heltzen da 859 miliou zakutara, igaran ourthian beno haboro 36 miliou zaku, hanitchez beharrunen gañetik, ezpeita hori segur prezioen gora erazteko.

Beste bihi muten uztak nasai izan dira, salbu sekaliarena, artekotto zena.

Betaraba bazkagei hanitch bazen eta eder. Sukre egitekoek ouste beno haboro eman die, bena eztukie laborariak mouzkin handirik haietarik idokiren, batere egiten badie. Ezi ogiaren antzo sukriaren prezioa ezinago aphałturik da. Kintaliak balio du gorenetik ho-

geita hamar libera, igaran ourthian balio, zialarik hogeita hamazortzi, eta, diala hirour ourthe, berrogeita bost. Halaz betarabak ezdutie merke baizik salzen ahal, eta mouzkinik gabe.

Kalamu eta liho bazen, bena usatu beno gutichago.

Ardou izan da. Pe hoietan lotsa ziren mahatsa ezledin aski hount. Bena mahastidunek uguruki nahi ukhen die berouñen hasteko, eta ountsa heltu zere, ekhia jin delakoz buruilako hilabetian, kasik egun oroz. Arren ardou franko eta houn, bena ez hullanik ere igaran ourthian bezanbat. Hartakoz ouste die hobeki salduko dela.

Sagar ardou egin die herenbat igaran ourthian eginaren petik. Mente zian ezziela aorthen bezalako udari uztarik ikhousi.

Belhar eta bazkagei hanitch eraiki die ; lur sagar ere bai.

Ziberouko berri. — Igaran ourthian beno haboro lasto izana gatik, ogi gutiago zen, lilitzeko phuntian, lanhotheiak izanez, botia eskaz beitzen, eta udaren hotzegiz ezpeita bihia hazi. Oro boti chazkoaz bostgerren batez gutiago izan da.

Artho goizik ereñak, haro gaichtoa berhala ondotik izanez, nekez sorthu ziren; eta ez net goihentu. Bihia houn eta ountsa zorhitu bazeie, buriak tchipi baratu dira. Berantago ereñak, bertan eta senthoki abiatu ziren gehienik faloucha izan zen alhorretan, bena zaña orano goihera zien phuntian eta zankhoak ez aski azkarturik, hegoa handibatek, lurrian pallat etzaten zutielarik, ondo hanitch haotse dutu. Buruilako egunaldi ekhizu eta beroek halere houn egin dere eta ountsa zorhitu dira. Chaz beno bostgerren bat gutiako artho.

Ilharra haroaren boustiak eta hotzak eztu laguntu ; guti sorthu da, eta dena ez ountsa hazi. Eztie laborariek bildu bere etchalten doiik ere. Lursagar uzta ere tchipi, sagarrak chehe eta ez net sano.

Mahats abio ederra izanik, lanhoek lilitzeko phun-

tian hanitch galerazi die. Ostoaren ederrari sobera fidaturik, zounbaitek eztie berant baizik bitriolstatu aihena, bena ez ordu houn. Ostoa goizik eihartu da mahasti hetan, eta morkhoak erdi hirotu; baratu bihiak aldiz nekez eta desbardin hountu. Goizik bitriola ezari dienek ukhen die mahats eijerki, berouña houn eta aski nasai. Oro boti, chaz beno erdia gutiago ardou eta guneka ez houn.

Sagar bazen, bena ezta ountsa hazi; hegoak ere hanitch egotchi du hountu gabetarik. Gaztañak eta intzaorrak, abio ederra izanik, balheitu lanho egunetan; zuhaintzen ostoa ere goizik eihartu, eta erori da.

Belhar hanitch izan da; bena haro hotz eta boustiareki sarthu behar ukhen die, bortu ondoetan berheziki. Aradall guti aldiz, bazka ere halaber.

II. — Lurren utzuliaz.

Laborari hounaren lehen antsia biz lurren, alhorren ountsa utzulzian. Lan horri behar bezala lotzen eztena hutsian arida. *Gaichki lurra erabilten baduk*, dio Italiako erran zahar batek, *sordeis dukek hantik erai-kia*. Egia hori hañ ehi da enthelegatzen, noun aoher belizate aiphatzia. Eta haregatik, houna lohitibat, handi betzaio ikhoustia bere ereitziak arteko jiten, alhorrak hanitch ountsa goroztatu landan. Nountik hori? Ardurenik lurak eztirelako aski erabilirik izan, edo gaichki utzulirik izan direlako, orobat beita.

Utzulziak airatzen eta trenkatzen du lurra, ezarten aidiari eta ekhiari phara eta belhar gaichto orotarik chahatzen. Lur trenkatian, lantharen zañak hedatzen dira, fresk egoiten, lur gordinian beno hobekiago; eta holaz ereitziak bigourtzez eta gorentzez joaiten. Lurren utzulikatziak eta airer phara ezartiak hountzen tiala ezta dudatzeko; hala noula behinere erabilirik

izan eztiren lurrak beitiago mentez deusere eman gabe.

Larrazkenian edo negian lurren utzulziak net ekhoizpen daduka, zeren luzaz beitaode kharroer eta airer phara; eta alhorren berazanetan phaosatzera eiztiak eluke balio handirik, lurra ezpaledi usu erabil. Lurbati indar emaiteko behar dira arren kharroak eta airiak sarthu luherabiliaren zolalano, eta horik ezti-teike hel baizik eta lurraren ountsa goldenabarkatzez.

Laborantcharen etsai handienak eta bethikoak direnak dirade belhar gaichtoak. Laborari aiphatubatek zioan belhar gaichtobatek ithotzen dila hirour ogiarpa eta sartzen laorgerrenaren ordari : deus ezta hori beno egiagorik. Hedatzen da belhar gaichtoa eta bizitzen ereitzer ezari hounkallien khostuz. Ourthe euri-zietan berheziki, boustitarzun soberabat jin erazten du ogi ondoetara eta holaz eror erazten alhorretan, ogiak bere gora doia egin gabe. Hartakoz laborariak, thaigabeko gudukabat egin behar du belhar gaichtoer.

Alhorren chahu izatetik ageri da laborari houna ; eta Bujault, laborari aiphatubat izan denak, zioan belhar gaichtoa eta laborari lazia ber ariatik direla.

Lurrak ountsa utzulirik izateko, behardu zabal bezain barna ildoak hartu. Ezta aski ildoen bardin egitia eta achalaren ordo ezartia ; behar da orano zola ere bardin erabili. Miskandiek, lanaren bertanago egitia gatik, ildoak hartzen die zounbait aldiz goldenabarrek irall ahal beno handiago : gisa hortara aritzez ildarte egiten eta lurra gaichki utzulzen. Zounbait aldiz agitzen dena da ere, ildo bastart egitia, eztelakoz aski gothorki etcheke golde nabarra ; erran nahidugu batian goiheregi, bestian barnegi lurrak eztiala behar utzuli, bestela ereitzek sendituko diela lan gaizki egite hori.

Zer barnagoatan utzulziak egin behar dira ? Ezta deus chuchenik hortako, zeren lurraren zimentiak eta

ereitzek hori egin behar beitie. Bena bada kasik orotan enjogidurabat, erakarten gutiana goiheratik lurren utzulzera. Oustekeriatan da ere laboraria barnatik utzuli lurra sobera gorotz edo hounkallu behar diala, bai eta ere lur zolan lo diren belharrak achaliala erakharten eta han sor erazten dutiala.

Arrazou tcharrak horik oro, gordatzeko goiheratik eta endeski egin lanaren. Nour ere oustekeriatan beita houn dela eta irabaz bide lurren achaletik utzulzez, tronpatzen da segur, zeren jiten bada ourthe idortebat, han gaichki joanen dira ogia eta bestelakoak, lurra emeki emeki mehatuko, eta laborariak ororen burian bere kapitala galduren.

Luherabiliak arren, mehatzez joaiteko ordutan, behardu aitzitik emeki emeki barnatzez lanthu, eta hortako ourthe oroz erhibat edo bigat lur gordinetik achalialat idoki. Hola aritzez bai naosia, bai eta etchezaña ountsa jalkhiko dira. Goiheratik utzulzien egitia ezta houn belhar gaichtoen gal erazteko baizik, ondotik barnago utzuliko delakoan. Arhiaz, arraseidiaz edo kharrakazalia (*scarificateur*) den tresnez lan hori egitez aldiz, eztate hobiago baizik.

Argiari eta airiari phara dagoenian lurra, bertan houn bilhatzen da, beretzen dutialarik *gaz ammoniacaux* deitzen diren sustantzia, lantharen edertzeko hain beharrak direnak. Haier esker, ereñen zañak na-saiki hedaturen dira barnatik erabilirik izan den lurrian, eta idortek ezteragokeie damurik han ereñik diratekien hazier, haboroziak boustitek, zeren boustitarzun soberakina egonen beita lur barnan lantharen zañak beno beherago.

Atze herribatetako laborari aiphatietarik batek, M. Rull denak, alegatzen du hamabi ourthez arround ber lurrian ogi eraiki ukhen diala goldenabar eta arhiaren lan bakharrari esker; ber gisan Anglatteran Schmittek ere luzaz, zounbait ourthez arround ber lurrian eraiki du ogi uzta ederrik lanen ountsa

eta usu egitez, batere gorotzik gabe. Horik hola direnaz geroz, gogoan hartu behar dugu lurren emeki emeki barnatziak hanitch ekhoizpen badagokala.

Bena elizatekia hobe batbatetan luherabiliaren ahal bezain barnatik utzultzia ? Bai eta ez, noulako ere beita lurraren zimentia. Ziberouko elgetan, batetan utzultziak barnatzen ahal dira gorotz emendiorik gabe ; bena patarretan edo saiheskietan, eta Uskal Herriko lur haboroak halako dira, ezta lurra uhaitzek kharreiatu belza uduri ; patarretan diot lurra holli eta mehe dela, eta zolako harrien eta lurraren uduriko, ezpada hounkallien medioz khanbiaturik. Eta alhor, bestiak ez bezalako zonbaitetan salbu, saiheskietan utzulzien barnatziari behar date gorotz haboro ezari, lur gordinetik achalialat idokitiaren araoka, lur gordina hount eta ereitzen hartzeko heñian jar artino. Hogeï zantimetra, edo zehe houn batetan barna utzulzera usaturik den lurra galtzen du lur gordina nahastekatzek ehun etarik hirourgerrena gizenduratik, eta horra zertako utzulze barnek behar diren izan zinez eta aosarkigoroztaturik, elgetarik kanpoko lurretan.

Lurraren barnatzeko bidiak oro eztira hortan zer ratzen : bada orano beste beniatat haren medioz lurra barnatzen ahal beitira gutiago gastureki, gorotza eskaz balinbada. Houra da goldenabarren oundotik ikherzalia (*la fouilleuse*) den tresnaren egartia. Tresna horrek, goldetik landan ilderrekan erabiltez, barnatik eraozten du zolako lur gordina achalialat idoki gabe, eta holaz eskusatzen gorotz emendio ezartetik, lur gordina beitago achalekoareki nahastekatu gabe.

III. — Laboraribaten egiteko.

Bada erranbat, mentez eta orai ere kourri dabilana, beitiu, laborari izateko nour nahi houn eta aski jaki-

tant dela. Elhe mehe hori ez goratik erranik ere Uskal Herrian, ezta gutiago egia jente hanitchek gogoan eroaiten diela hori hala dela.

Eztu aspaldi, Frantziako laborari aiphatien biltzarren batetan erranik izan dela, ikhertziak arthoski eginik hortako, egunko gazteriak, *certificat d'études primaires* denbat irabaziz geroz, eztiala deus besterik gogoan, baizik eta notari edo abokatu bereter edo izkiribaño izatia, edo errejent eta errejentsa ; ouste diela laborari hingatzeo sobera badakiela, eta etche-koen flakeziarekin batian, ofizio erdi aoher horietan biziko direla ountsaz ehiago eziaz lur lanetan.

Ez, gazteria goستن eta hanitch maite zutieguna, oustekeriatan baziradie jakitantegiz laborari izateko ; oustebaduzie ofizio gutiziatzen dutuzien horietan zien etchekoek edo laborantchan beno dohatsiako biziren ziradiela, bidez gainti bazoazte. Eta burian ountsa har ezazie beste erran hao, lehena beno egiatikagoa dena : laboraria bethi aperendiz dela, eta geroago eta habo-roago bethi ikhasi eta jakin behar diala.

Bena, aitzina mintza beno lehen, dugun algar enthe-lega. Ezta aski berbera eskolaturik izatia laborari houn baten egiteko ; ezta aski gela edo khanberabatetan libru zounbait irakourt, eta haier so, laborantchako egitekoen joan eraztia. Behar da orano abisiari eta nour berak egin lanari hersatu, erran behar du ihourk bere beithari : Zer ekhoizpen dukek hola aritzez ? zertako hola egiten duk, eta noula hobeki egin laite ?

Dudagabe da badela asko laborari batere eskolarik edo librietako jakitaterik gabe, egun orozko lanaz eta abisiaz, erranen duta ere, denbora khostuz, hanitch ountsa laborantcha joan erazi eta hanitch ikhasi dienik. Bena ber laborari hoiek, izan balia hatsarretik zerbait eskolareki, ountsaz aperendiz denbora llabur-rago lukeien, eta enia ouste, gutiagoreki heltu litz-kiala jakitate doi den heñiala.

Ez erran arren, gizoun gazte maitia, zoure buriari,

laborari izateko sobera badakizula ; elhe horrek ogen ekhar leikezu. Ezi laborantchak, beste zer nahi ofizio mutak beno haboro, eskola edo jakitate galthatzen dizu. Nahi duzia ikhous dezagun hori hola denez ?

Houna etchaltebat lur eremubat, zouri buruz dena eta lanthu behar duzuna. Nahi baduzu ekhoizpen ejerrik jaozerazi, behar duzu etchalte haren, lur haren kalitatia zer den ezagutu eta ez berbera luherabili edo achalaren kalitatia, bena orano aldepeko lurrarena, eta horra zertako laboraribat izan behar den trebaturik lurren ezagutzian.

Zoure lurretan ezarriko diren ereitzek ediren behar ditiketzie ountsa joaiten eta laket zaizken hounkalliak. Hortakoz laborariak behar du jakin heinbatetan *chémie* den ezagutzia.

Zoure etchaltian kabale suberte orotarik badukezu : borthako, zaldi, behi, ahari, ardi, idi eta besterik. Haien bizitzeko eta osagarri hounian etchekitzeko zer bizigarri behar dien, eta zer soen eman behar zeren jakiteko, horra zeren laborariak jakin behar dian beterinergoa khochibat.

Lanen ountsa eta bertanago egiteko behar duzu tresna muta orotarik : ogi ereiteko, ogi joiteko, mahats zaphatzeko, tinkatzeko, sagar ardou egiteko, lurren behar bezala erabilteko, goldenabar berri eta beste hanitch orano. Hoién jakin arao erosteko eta egarteko khordoka erazi gabe, horra zerentako laborariak jakin behar dian mekanika.

Eztizugu erranen laborariak horik oro jakin behar dutiala gizoun sabant eta aiphu handitakoek bezala, bena eztuzu gutiago egia ezagutze horik hein batetan ukhen behar dutiala laborariak.

Eta, azkenekoz, laborariaren nekatziak bere mañataren edo familiaren bizierazteko eta gero, ahal bada, zerbaít diharuren intresian edo galzabatetan ezarteko egiten beitira, noula jakin zerk haboroenik emaiten deron bere ereitzetan edo kabaletan, ezpadu ihourk


khountukabat etchekiten ? Ezta khountuka hori nahi bezala egiten ; behar dira jinphidiak eta joanphidiak chuchen izkiribuz ezari : haïetarik ageriko beita, egunez egun, zertan diren etchalteko egitekoak. Khountukatzen arren jakin behar.

Zounbat orano ezta beste jakiteria laboriariari doatzanak, eta armanak tchipi hountan, lekhu faltan, mentsi ezin ditirogianak ? haien ororen ikhasteko ezpelizate sobera gizoun zentzudun eta eskola handitakobat.

Arren gizon gaztia, ez lotsa izan, *certificat* bat duczulako, laboraritzeko sobera, ezi aski ere, badakizula. Laborari tchipiak, erran gabe doazu, eztukiala laborari handiak bezain beste jakitate beharrik ; bena egunko egunian, egitekoetan burutan joateko, handiek eta tchipiek ezagutziak argiturik izan behar dizie, deus hounik egiteko. Gudu arren hatsarrian aiphatu dugun erran mehe, ororen artian ouhouragarri eta beharrenik den estatu hortarik sobera gazte zeihar erazten dianari. Houn lizate hirietako moutiko gazte, usiegi ezdeus bilhakutzen direnak, laborantchari doatzaneren tchestu har baleze. Halaz elizate Frantzian ikhous-ten den bezanbat esteiari eta gosejankinik.



ISTORIA ETA ERASI



HENRIK laorgerrena, errege aiphatia, printze handi bezain gerlakari zen. Bazutian bere armadetako aitzindarietan bera bezalakoak, eta, haien artian, Crillon marechala lehen lehena zen. Aldibatez kortian zelarik Crillon houra jaon arrotz eta enbachadore elibateki, Henrik, hari buruz joanik, jo zeron souin buria eta erran orok entzuteko gisan :

« Hao duziela, jaonak, Frantziako gerlakari handiena. »
— « Gezurra diozu, bestiak hain sarri ihardesti, jaon
erregia, zeren zu beitzira egiazki mente hountako
gerlakari hobena. »

* * *

Ber erregia igaraiten zen herri tchipibat etan ; hanko
jaonskot elibat jin zeitzon, ordian mouda zen bezala,
hounki jinezko pherediku baten egitera. Haietarik bat
bere pheredikian ari zelarik, hullanian ziren hirour
edo lao asto orroaz hasi : « Jaonak, ordian erregiak,
elhezasetucherik beitzen, ez oro batetan mintza, lakhet
bazaizie, bestela ezin entzun zitzakiet. » Hartan ur-
hentu zen solaza.

* * *

Uda egun batez, Turenne jeneral aiphatia, bero
handia beitzen, souñekoa idokirik, leihoan kunkurturik
zegoen, kanpoalat soz. Haren mithiletarik bat, sarthu-
rik khanberan, ouste beitzian leihokoa sukhalteko
langiletarik bat zela, hullantu zeron emeki eta eman
iphourdin gañen zaflakobat, bena ochena. Turenne
utzultzen da berhala. Mithilak ikhousten du buruzagia
zela, eta harriturik belharikatzen da haren aitzinian :
« Ah! jaona, pharka izadazu ; ouste nizun Batista
zinela. » — « Eta Batista izanik ere, Turennek arra-
postu, gibelaldia hazkatzen zialarik, ehian hain zinez
jo behar. »

* * *

Jaoregibatetako kozinera, eztakit zerentako, duda-
gabe gaichki gobernatzen zelako, etcheke anderiak
kanpo ezari zian. Joan zen aizoala eta kan galthatu
zeren eia etzianez dolurik galdu lekhiatz : « Eztit ez
dolurik batere, harek arrapostu, hanko tchakurraren
baizik, ountziak oro chahatzen beitzeiztan. »

* * *

Ouhouñbat bazen behin, tribunaliala deithurik :
« Hots, holakoa, erraiten dero alkhate gehienak badu-
zia besterik erraiteko zoure hounetan ? » — « Bai,

jaona, hitzbat berbera ». — « Errazu, arren » — « Jaon presidenta, esparantza dit ikhoustate amiñibat badukezula enetako ; ezi zazpi gerren aldia dizu badudala zuk jujaturik izateko ouhouria. »

*
**

Pariseko jaonbat paseiun zelarik hiri handi hartako ungurunetan, bathu zian ulhañ emaztebat behibaten bazkatzen bide bazterrian : « Eta zouria deia behi hori, emaztettoa ? » — « Bai, jaona. » — « Eta houna ? » — « Houna denez eia ! bai segur ; emaiten ditadazut egunkal hamar khotchuska ezne ». — « Eztuzu beste behirik hori baizik ? » — « Ah jaona, zerbait duzu baten ere haztia. » — « Gourhirik egiten duzia ? » — « O, hatik, ez ; eznia saltzen dit ». — « Eta zounbat ezne saltzen duzu ? » — « Haratche, hounatche, hamabost edo hamazortiz khotchuska egunian. » Jaonak aski bazian entzunik, eta joan zen ezniaren khountia bere beithan egiten zialarik.

*
**

Hor nounbait, basa bazter batetako erretorra bazabilan goizik, argia beno lehen, hirilat buruz, merkhatu egunaren biharamenian. Bide khurutchadabat gainti igaraiten zelarik hurrunian uduritu zaion zerbait igitzen, eta hasperen ere entzun zian. Zer othe zatekian ikhousi beharrez, hullantu zen emekiñi. Gizon bat zen han hedallo, igi aldikal marrakaz. « Errazu, adichkidia, erraiten dero aphezak, zer duzu arren ; trenpu tcharrian ziradiala uduri zitazu ? » — « Heee ? » — « Eri zirenez deizut galthatzen. » — « To, debrioa ! zu zizena, jaon erretora ? Pharka ezadazu, ezpazutut lehen aldian ezagutu. Eztit deusere zankhoak berere ahultucherik. Ez halere erhokeria handirik eginik.... bena badakizu, jaona..... » — « Bai, Pette, bai ! españoul hori soberache azkar.... » — « Ez jaona. Ezi frantzesak orai artino bethi etche-rat eroan nizu, eta hounek heben eitzi. »



MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laordenez




- ☿ l. l. 2ⁿ, goizanko 3^{or} eta 53 min
- ☿ a. o. 9ⁿ, gaiherdi eta 8min.
- ☿ a. l. 16ⁿ, arratseko 5^{or} eta 53 min
- a. b. 24ⁿ, eguerdi eta 56 min.
- ☿ l. l. 31ⁿ, goizanko 8^{or} eta 58min

ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a drano.



- ☿ a. o. 7ⁿ, goizanko, 11^{or} eta 9min
- ☿ a. l. 15ⁿ, goizanko 11^{or} eta 37min
- a. b. 22ⁿ, arratseko 10^{or} etan.
- ☿ l. l. 29ⁿ, arrastiriko 20^{or} eta 10min



- | | | |
|----|-------------------|------------------------|
| 1 | Astizken. | J. Filipe et. Jak. Ap. |
| 2 | Ostegun. | s. Atanasi. |
| 3 | Ostirale. | Da Khurutze. |
| 4 | Neskanegun. | sa Monika. |
| 5 | Igante. 3. | s. Pio V. |
| 6 | Astelehen. | J. Johane, Eb. B. L. |
| 7 | Asteharte. | s. Stanizlaz. |
| 8 | Astizken. | J. Migel. agert. |
| 9 | Ostegun. | s. Gregori, na. |
| 10 | Ostirale. | s. Antoneñ. |
| 11 | Neskanegun. | s. Orienz. |
| 12 | Igante. 4. | s. Nere eta Akil. |
| 13 | Astelehen. | s. Jenio. |
| 14 | Asteharte. | Johane Sala d. |
| 15 | Astizken. | s. Eutrope. |
| 16 | Ostegun. | s. Johane Nep. |
| 17 | Ostirale. | s. Paskal. |
| 18 | Neskanegun. | s. Venanzio. |
| 19 | Igante. 5. | sa Pud. nzieta. |
| 20 | Astelehen. | s. Bernardeñ. |
| 21 | Asteharte. | s. Petiri Zel. |
| 22 | Astizken. | sa Kiteria. |
| 23 | Ostegun. | SALBATORE |
| 24 | Ostirale. | A. B. Lagunzalia. |
| 25 | Neskanegun. | s. Gregori VII. |
| 26 | Igante. | s. Filipe Neri. |
| 27 | Astelehen. | s. M. Mad. P. |
| 28 | Asteharte. | s. Agosti. |
| 29 | Astizken. | s. Garzia. |
| 30 | Ostegun. | s. Felis. |
| 31 | Ostirale. | sa Anjela. |

- | | | |
|----|-------------------|----------------------|
| 1 | Neskanegun. | s. Kler. |
| 2 | Igante. | PENTEKOSTE. |
| 3 | Astelehen. | sa Klotilda. |
| 4 | Asteharte. | s. Frantzes K. |
| 5 | Astiz. IV Th. B. | s. Bonifazi. |
| 6 | Ostegun. | s. Norbert. |
| 7 | Ost. IV Th. B. | s. Majan. |
| 8 | Nesk. IV Th. B. | s. Medart. |
| 9 | Igante. 1. | TRINITATE. |
| 10 | Astelehen. | sa Margarita. |
| 11 | Asteharte. | J. BARNABE, ap. |
| 12 | Astizken. | s. Johane Fag. |
| 13 | Ostegun. | BESTABERRI. |
| 14 | Ostirale. | s. Basila. |
| 15 | Neskanegun. | sa Jermena. |
| 16 | Igante. 2. | s. Frantz R. |
| 17 | Astelehen. | s. Avit. |
| 18 | Asteharte. | sa Marina. |
| 19 | Astizken. | s. Jervasi eta Prot. |
| 20 | Ostegun. | sa Julieta Falk. |
| 21 | Ostirale. | J. BIHOTZ SAK. |
| 22 | Neskanegun. | s. Pauleñ. |
| 23 | Igante. 3. | s. Eusebio. |
| 24 | Astelehen. | J. JOHANE BA. |
| 25 | Asteharte. | s. Eurosia. |
| 26 | Astizken. | s. Johane eta Paule. |
| 27 | Ostegun. | s. Prosper. |
| 28 | Ostirale. | s. Irene. |
| 29 | Neskanegun. | J. PETIRI P. |
| 30 | Igante. 4. | J. Phaoleren orh. |



UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- ☿ a. o. 6ⁿ, arratseko 11^{or} eta 11^m.
 ☿ a. l. 15ⁿ, goizanko 3^{or} eta 41^m.
 ● a. b. 22ⁿ, goizanko 5^{or} eta 41^m.
 ☿ l. l. 28ⁿ, arratseko 8^{or} eta 45^m.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- ☿ a. o. 5ⁿ, arrastiriko 2^{or} etan.
 ☿ a. l. 13ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 28^m.
 ● a. b. 20ⁿ, arrastiriko 1^{or} eta 5^m.
 ☿ l. l. 27ⁿ, goizanko 5^{or} eta 53^m.



- | | | |
|----|-------------------|--------------------------|
| 1 | Astelehen. | s. Tierri. |
| 2 | Asteharte. | A. B. BISITAZ. |
| 3 | Astizken. | s. Gillen. |
| 4 | Ostegun. | s. Leon II. |
| 5 | Ostirale. | s. Zirile. |
| 6 | Neskanegun. | s. Trankile. |
| 7 | Igante. 5. | <i>Jes. Odol. Pr.</i> |
| 8 | Astelehen. | sa Beronika |
| 9 | Asteharte. | sa Elisabet, p. |
| 10 | Astizken. | Zazpi anaie m. |
| 11 | Ostegun. | s. Pio. |
| 12 | Ostirale. | S. Johane Galb. |
| 13 | Neskanegun. | s. Anaklet. |
| 14 | Igante. 6. | s. <i>Bonaventura</i> |
| 15 | Astelehen. | s. Johane Maj. |
| 16 | Asteharte. | A. D. M. KARM. |
| 17 | Astizken. | s. Aletsis. |
| 18 | Ostegun. | s. Kamille. |
| 19 | Ostirale. | s. Bizente Paolo. |
| 20 | Neskanegun. | s. Filibert. |
| 21 | Igante. 7. | sa <i>Pratseda.</i> |
| 22 | Astelehen. | sa <i>M. Maidalena</i> |
| 23 | Asteharte. | s. Apolinari. |
| 24 | Astizken. | s. Henrik. |
| 25 | Ostegun. | J. JAKOBE, ap. |
| 26 | Ostirale. | sa Aña. |
| 27 | Neskanegun. | s. Galatori. |
| 28 | Igante. 8. | s. Nazari eta Zelze. |
| 29 | Astelehen. | sa Marta. |
| 30 | Asteharte. | s. Abdon. |
| 31 | Astizken. | s. <i>Inazio Loyola.</i> |

- | | | |
|----|--------------------|-----------------------|
| 1 | Ostegun. | J. Petiri katietan. |
| 2 | Ostirale. | s. Alfonso Lig. |
| 3 | Neskanegun. | J. Ezteber. edir. |
| 4 | Igante. 9. | s. <i>Dominiche.</i> |
| 5 | Astelehen. | A. B. M. Elhur. |
| 6 | Asteharte. | J. K. Transfig. |
| 7 | Astizken. | s. Kajetan. |
| 8 | Ostegun. | s. Ziriako. |
| 9 | Ostirale. | s. Jermeñ. |
| 10 | Neskanegun. | s. Laorenz, m. |
| 11 | Igante. 10. | s. <i>Tiburze.</i> |
| 12 | Astelehen. | sa Klara. |
| 13 | Asteharte. | sa Radegonda. |
| 14 | Astizken. | s. Eusebi. |
| 15 | Ostegun. | A. D. M. MARIA Zel. |
| 16 | Ostirale. | s. Rok. |
| 17 | Neskanegun. | sa Emilia. |
| 18 | Igante. 11. | s. <i>Joakim.</i> |
| 19 | Astelehen. | s. Filomena. |
| 20 | Asteharte. | s. Bernat. |
| 21 | Astizken. | s. Julien, Lesk. |
| 22 | Ostegun. | s. Ipolita. |
| 23 | Ostirale. | s. Filipe Ben. |
| 24 | Neskanegun. | J. BARTOL., a. |
| 25 | Igante. 12. | A. B. <i>Bibotzs.</i> |
| 26 | Astelehen. | s. Louis, erreg. |
| 27 | Asteharte. | s. Jusef. Kal. |
| 28 | Astizken. | s. Agosti. |
| 29 | Ostegun. | J. Joh Lephom. |
| 30 | Ostirale | sa Rosa Lima. |
| 31 | Neskanegun. | s. Remoun N. |



BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- Ⓐ a. o. 4ⁿ, goizanko 6^{or} eta 5 min.
- Ⓑ a. l. 12ⁿ, goizanko 5 oren etan.
- Ⓒ a. b. 18ⁿ, arratseko 9^{or} eta 5 min.
- Ⓓ l. l. 25ⁿ, arratseko 6^{or} eta 32 min.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- Ⓐ a. o. 3ⁿ, arratseko 10^{or} eta 57 min.
- Ⓑ a. l. 11ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 44 min
- Ⓒ a. b. 18ⁿ, goizanko 6^{or} eta 19 min.
- Ⓓ l. l. 25ⁿ, goizanko 1^{or} eta 13 min.



- | | |
|-----------------------------|---------------------------------|
| 1 Igante. 13. | <i>s. Bizente, ap. m.</i> |
| 2 Astelehen. | <i>s. Eztebe, erreg</i> |
| 3 Asteharte. | <i>s. Lizier.</i> |
| 4 Astizken. | <i>sa Franz. Chant</i> |
| 5 Ostegun. | <i>s. Laorenz J.</i> |
| 6 Ostirale. | <i>s. Onesifore.</i> |
| 7 Neskanegun. | <i>s. Zebero.</i> |
| 8 Igante. 14. | <i>A. B. SORTZIA.</i> |
| 9 Astelehen. | <i>s. Omer.</i> |
| 10 Asteharte. | <i>s. Nikolas.</i> |
| 11 Astizken. | <i>s. Hiazinte.</i> |
| 12 Ostegun. | <i>s. Gi.</i> |
| 13 Ostirale. | <i>sa Eujenia.</i> |
| 14 Neskanegun. | <i>D^{na} Khurutze.</i> |
| 15 Igante. 15. | <i>A. B. Izen Saint.</i> |
| 16 Astelehen. | <i>s. Ziprieñ.</i> |
| 17 Asteharte. | <i>s. Franz. Zaor.</i> |
| 18 Astizk. <i>IV Th. B.</i> | <i>s. Jusef Kup.</i> |
| 19 Ostegun. | <i>s. Janvier.</i> |
| 20 Ostir. <i>IV Th. B.</i> | <i>s. Eustache.</i> |
| 21 Nesk. <i>IV Th. B.</i> | <i>J. MATHIU, Eb.</i> |
| 22 Igante. 16. | <i>A. B. DOLOR.</i> |
| 23 Astelehen. | <i>sa Rekla.</i> |
| 24 Asteharte. | <i>A. B. Librazalia</i> |
| 25 Astizken. | <i>s. Austinde.</i> |
| 26 Ostegun. | <i>s. Tomas Vill.</i> |
| 27 Ostirale. | <i>s. Kosme eta Dam.</i> |
| 28 Neskanegun. | <i>s. Fauste.</i> |
| 29 Igante. 17. | <i>J. MIGEL, ark.</i> |
| 30 Astelehen. | <i>s. Jeronimo.</i> |

- | | |
|-----------------------|-------------------------|
| 1 Asteharte. | <i>s. Remi.</i> |
| 2 Astizken. | <i>Ainguru Begir.</i> |
| 3 Ostegun. | <i>s. Exupero.</i> |
| 4 Ostirale. | <i>s. Frantzes, As.</i> |
| 5 Neskanegun. | <i>s. Venzeslaz.</i> |
| 6 Igante. 18. | <i>ARRUSARIOA</i> |
| 7 Astelehen. | <i>s. Fide.</i> |
| 8 Asteharte. | <i>sa Birjita.</i> |
| 9 Astizken. | <i>s. Denis.</i> |
| 10 Ostegun. | <i>s. Frantzes Bor.</i> |
| 11 Ostirale. | <i>sa Sabina.</i> |
| 12 Neskanegun. | <i>sa Domnina.</i> |
| 13 Igante. 19. | <i>A. B. Amatarz.</i> |
| 14 Astelehen. | <i>s. Kalista.</i> |
| 15 Asteharte. | <i>s. Teresa.</i> |
| 16 Astizken. | <i>s. Bertran.</i> |
| 17 Ostegun. | <i>s. Edvije.</i> |
| 18 Ostirale. | <i>J. Luk Ebanj.</i> |
| 19 Neskanegun. | <i>s. Grat. Olor.</i> |
| 20 Igante. 20. | <i>A. B. Garbilarz</i> |
| 21 Astelehen. | <i>s. Ursula.</i> |
| 22 Asteharte. | <i>s. Petiri, Alk.</i> |
| 23 Astizken. | <i>s. Leotade.</i> |
| 24 Ostegun. | <i>s. Rafael, ark.</i> |
| 25 Ostirale. | <i>s. Krespin.</i> |
| 26 Neskanegun. | <i>s. Evarista.</i> |
| 27 Igante. 21. | <i>A. B. Patron.</i> |
| 28 Astelehen. | <i>J. SIMOUN, ap.</i> |
| 29 Asteharte. | <i>sa. Eusebia.</i> |
| 30 Astizken. | <i>s. Kazieñ.</i> |
| 31 Ostegun. | <i>s. Zirizio.</i> |



AZAROA edo GOROTZILA
Egunak llaburtzen dira orenez.




- Ⓔ a. o. 2ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 28^m
Ⓕ a. l. 9ⁿ, arratseko 11^{or} eta 16^m
● a. b. 16ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 21^m
Ⓓ l. l. 24ⁿ, goizanko 7^{or} eta 28^m

ABENTIA edo NEGILA
Eg. llaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}.



- Ⓔ a. o. 2ⁿ, goizanko 6^{or} eta 48^m
Ⓕ a. l. 9ⁿ, goizanko 7^{or} eta 19^m
● a. b. 16ⁿ, goizanko 6^{or} eta 39^m
Ⓓ l. l. 24ⁿ, goizanko 5^{or} eta 31^m
Ⓔ a. o. 31ⁿ, arratseko 8^{or} eta 40^m



1 Ostirale.	DONISANTORE.
2 Neskanegun.	Purg. Arimak.
3 Igante. 22.	<i>Errelikia</i> sk
4 Astelehen.	s. Charles Bor.
5 Asteharte.	s. Zakaria.
6 Astizken.	s. Léonart.
7 Ostegun.	s. Florent.
8 Ostirale.	4 Martirak.
9 Neskanegun.	s. Teodoro.
10 Igante. 23.	ELIZEN SAKR.
11 Astelehen.	J. MARTINE.
12 Asteharte.	s. Stanizlaz K.
13 Astizken.	s. Didazi.
14 Ostegun.	s. Josafat.
15 Ostirale.	sa Jertruda.
16 Neskanegun.	s. Edmon.
17 Igante. 24.	s. Gregori T.
18 Astelehen.	s. Odon.
19 Asteharte.	sa Elisabet Hgr.
20 Astizken.	s. Félix, Valesi.
21 Ostegun.	A. B. <i>Eskentzia</i>
22 Ostirale.	sa Zezila.
23 Neskanegun.	s. Klement.
24 Igante. 25.	s. <i>Johane Kh.</i>
25 Astelehen.	sa Katalina.
26 Asteharte.	s. Petiri, Al.
27 Astizken.	s. Virjile.
28 Ostegun.	s. Maurino.
29 Ostirale.	s. Saturnino.
30 Neskanegun.	J. ANDREU, Ap.

1 Igante.	ABENTUKO 1 ^a
2 Astelehen.	sa Bibiana.
3 Asteharte.	s. <i>Frantzés Xab.</i>
4 Astizken.	sa Barbara.
5 Ostegun.	s. Sabas.
6 Ostirale.	s. Nikolas.
7 Neskanegun.	s. Ambrosi.
8 Ig. <i>Abent.</i> 2 ^a .	A. B. KONZEP.
9 Astelehen.	s. Jeronze.
10 Asteharte.	sa Eulalia.
11 Astizken.	s. Daniel.
12 Ostegun.	s. Melkiade
13 Ostirale.	sa Luzia.
14 Neskanegun.	s. Arzene.
15 Igante.	<i>Abentuko</i> 3 ^a .
16 Astelehen.	s. Euzebio.
17 Asteharte.	s. Lazaro.
18 Astiz. <i>IV Th. B.</i>	s. Gazien.
19 Ostegun.	s. Urbeñ.
20 Ostir. <i>IV Th. B.</i>	sa Julia.
21 Nesk. <i>IV Th. B.</i>	J. TOMAS, Ap.
22 Igante.	<i>Abentuko</i> 4 ^a .
23 Astelehen.	s. Onorat.
24 Asteharte.	sa Delfina.
25 Astizken.	EGUBERRI.
26 Ostegun.	J. EZTEBE, m.
27 Ostirale.	J. JOHANE, Eb.
28 Neskanegun.	Haor Inoz.
29 Igante.	s. Tomas, Kant.
30 Astelehen.	s. Manzuct.
31 Asteharte.	s. Silbestre.

OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 ^{an} .
UDA hasten da arramaiaatzeko	21 ^{an} .
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 ^{an} .
NEGIA hasten da abentuko	22 ^{an} .


MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOULEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilako 6ⁿ. — ATHAR-
 RATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste bihara-
 menian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE
 GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste
 ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**,
 Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26ⁿ. — GARRUZEN :
m., ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian.
 — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthall. 3ⁿ *eta*
 aphiril. 15ⁿ. — HAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondoko
 astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN :
m., astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentⁿ 8ⁿ. —
 ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen
 astehⁿ. — OLOROUN : **m.**, ostir, *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1ⁿ ;
eta burullⁿ 8ⁿ, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg.,
f., Gorozum. lehen astelehⁿ, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. —
 SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizkⁿ *eta* urrie-
 tako asken ostegunian.





Edireugia



I. Aita Sainiaren erakaspenak.....	65
II. Jaon Espona, aphezkupia.....	67
III. Eskola khiristiak.....	70
IV. Legarrak eta Frantziako zorra.....	74
V. 1894 den ourthia.....	78
VI. San Blasi.....	79
VII. Laborantchaz :	
1 ^{ik} Ustak 1894 ^{an}	85
2 ^{ik} Lurren utzulziaz.....	88
3 ^{ik} Laborari baten egiteko.....	91
VIII. Istoria eta erasi.....	94

